



MARIÑE ZEBERIO

Aixerrota BHI , 14-15

AURKIBIDEA

Karmele Jaio..... 2

Sarrera..... 2

Amaren eskuak

- Kokapena..... 3

- Gaia..... 3

- Argumentua..... 3

- Istorioa..... 4

- Egituraketa..... 5

- Pertsonaiak..... 5

- Baliabideak..... 6

Iritzia..... 7

Bibliografia..... 8

KARMELE JAIIO

Karmele Jaio Eiguren euskal idazle eta kazetaria da, 1970ean Gasteizen, Araban jaioakoa. Euskal Herriko Unibertsitatean kazetaritza ikasi ondoren, kazetari lana bete du hainbat idatzizko komunikabidetan, hala nola, *Euskaldunon Egunkarian* eta *Garan*, baina *Diario de Noticias de Álava* eta *Deian* ere idatzi ditu iritzi zutabeak.

Lehen liburua 2004an argitaratu zuen, *Hamabost zauri* izeneko ipuin bilduma. 2006an argitaratu zuen *Amaren Eskuak* nobela, eta hainbat sari irabazi zituen honekin: *Igartza Saria*, *Zilarrezko Euskadi Saria*, *Zazpi Kale Saria* eta *Beterriko Liburua Saria*. Eleberri honen arrakasta ikusita gaztelaniara itzuli zuen *Jaiok berak*, *Las manos de mi madre* izenburupean. Gainera, zinemarako bertsioa zuzendu du *Mireia Gabilondok*, 2013ko Donostiako zinemaldian estreinatu dena. Bere hurrengo lanetan eleberria eta ipuina tartekatu ditu: 2007an *Zu bezain ahul* ipuin bilduma, 2009an *Musika airean* eleberria eta 2012an *Ez naiz ni* ipuina.

SARRERA

Karmele Jaioaren eleberri honek Nerea du protagonista, Ingalaterran ezagututako gizon batekin ezkonduko emakumea. Bere bizitza egunkariko erredakzioko lanarekin eta Maialen alabarekin nahikoa estutua bazuen, bere ama kalean galduta aurkitu eta ospitaleratzean guztiz malkartu zaio bizimodua: amak zehazten ez den gaixotasunaren ondorioz ez du errekonozitzen, espero ez zituen amaren aspaldiko kontuak argitzen dizkio izeko Doloresek, amari behar besteko maitasuna erakutsi ez izanaz damu da, aspaldian desagertu zen bere nobio Karlosen berriak heltzen zaizkio, eta sentimenduen zurrunbiloan sartzen da. Eleberriak amaren gaztetako abenturak argitzen ditu, kapitulu laburrak ildo nagusian tartekatuz, eta Nerearen bizitza itogarria kontatzen du narratzaile orojakile baten hitzetan. Metaforez baliaturik, bere sentimendu eta zirrarak bizitzera gonbidatzen gaitu. Horrela, XX-XXI. mendeko denboraren menpeko bizimodua islatzen du istorioak, baina batzuetan denbora horrek gelditu izan balitz bezala salto egin eta aspaldiko kontu ezkutatuak eskaintzen dizkigu.

AMAREN ESKUAK

KOKAPENA

Denbora aldetik, XXI. mendean edo gaur egunean dago kokatua. Istorioa Euskal Herriko hiri batean dago kokatua, nahiz eta zeinetan zehazten ez den, izan ere, Urkiola edo Bilbo aipatzen dira, biak Bizkaiko lurraldeetakoak. Abentura daiteke ETA talde armatuaren ekintzak oraindik berean dihardutela, bonba-auto baten ezlandaz eta eragin politikoez hitz egiten baita nobelan. Gainera, pertsonaia batek erbestean hainbat urte ematen dituela esaten da, poliziatik ihesi.

GAIA

Familiakoak ezagutzeko gai ez den ama ospitalean duen Nerearen bizimodua kontatzen du istorioak, beste hainbat gai ere jorratuz: aspaldiko oroitzapenak, maitasuna, denbora falta...

ARGUMENTUA

Eleberri honetan Nerearen eta bere ama Luisaren istorioa kontatzen da. Nerea emakume heldua da, senarra eta alabarekin bizi dena, zeinei nahi adina denbora eskaintzen ez dien, egunkarian erredakzioko lana dela eta. Ama kalean galduta aurkitu eta buru arazoren bategatik ospitalean sartzean, bizitza hankaz gora jartzen zaio Nereari:urte askoan erbesteratua izan zen mutil lagun ohiaren berriren bat heltzen zaio, Lewis senarrarekin komunikazio falta sumatzen du, Maialen alabari ez dio behar beste denbora eskaintzen, eta batez ere amak esaten dituen hitz solteek haren iraganeko maitasun istorio bat deskubritzen laguntzen diote. Horrela, ama uste baino gutxiago ezagutzen zuela konturatzen da, eta oraindik beragatik edozer egiteko prest dagoela, baita Luisak behin eta berriz aipatzen duen farora eramateko ere.

ISTORIOA

Nerearen ama Luisa kalean galduta aurkitu eta erietxera eramaten dutenean hasten da istorio hau. Zehazten ez den buruko gaixotasun baten ondorioz, Luisak ez du familiako inor ezagutzen, eta lotan edo begirada galdurik pasatzen ditu orduak ospitaleko ohean. Nerea guztiz kezkatzen eta tristatzen du egoera berri honek. Gainera, egunkari bateko erredakzioan egiten du lan, askotan berandurarte, eta gero eta zailago egiten zaio Maite lagunarekin zein familiarekin lasai egotea. Ama erietxean dagoela areagotzen dira Lewis senarrarekin komunikazio falta duela eta Maialen alabari behar beste denbora eskaintzen ez dionaren susmoak. Horrez gain, lanean etengabe zentzugabeko aginduak eta kexak ematen dizkion Fidel gero eta gehiago gorrotatzen duela konturatzen da, eta behin gustuko izan zuen lan horrek estresatua daukala. Bestalde, aspaldi poliziatik ihesi erbesteratu zen Karlos mutil lagun ohia ezin du burutik kendu, nahiz eta hura gabe bizi berri bat eraikita izan. Egoera horretan, izeko Doloresi, amaren ahizpari deitzen dio, eta Alemaniatik etortzen da, laguntzeko prest. Izeko etxean edukita, txandak egiten dituzte Luisa zaintzeko, eta halako batean hitz edo esaldi laburrak esaten hasten da, farora joan nahi duela, besterik ez. Gainera, Germanen delakoa deitzen pasa zuen gau bat, Piliren, ama logela berean ingresatuta duen emakume hiztunaren arabera. Esandako guztia izekori kontatzean, jarrera berezia hartzen du honek, aspaldiko istorioren batekin zerikusia izango balu bezala. Azkenean izekok Nereari kontatzen dio nola amak, gaztetan Izagirre jatetxean lan egiten zeuenean, errekaduak egitera joateko aitzakiarekin itsasertzera hurbiltzen zen, bertan itsasgizon zen German delakoarekin elkartzera, itsasoan zorte ona opatzeko. Zigortuta zegoenez, denbora batez ezin izan zuen itsasertzeko farora joan, eta denbora hartan enbata batek German uretara bota eta guztiz aldarazi zuen. Horrela, haien arteko istorioa amaitu eta hainbat urte beranduago, farora itzultzea desiratzen du Luisak. Izekok kontatutakoa entzuten konturatzen da zeinen ezezagunak izan daitezken hurbilen ditugun pertsonak. Bestalde, Maite lagunak Karlos herrian dela komentatzen dio, eta harekin geratzea adosten du, aspaldiko mamuak desagertzeko helburuarekin. Azkenean, nahiz eta medikuak debekatua izan, Piliren laguntzaz farora eramaten dute alabak eta ahizpak, eta bertan, aspaldiko partez, amaren eskuek Nerea beragandik gertu sentiarazten dute.

EGITURAKETA

Kapituluka dago egituratua nobela hau. Gehienak ildo nagusiaren parte badira ere, iraganeko istorioa kontatzen dituen kapituluak txertatzen ditu. Horrela, Luisaren maitasun istorioa, eta azken batean, bizitza eraikitzea ahalbidetzen dio irakurleari. Beraz, autoreak egitura lineala erabili du istorioa kontatzeko, baina iraganera saltoak edo *flash back* -ak egiten ditu kapitulu berezi horien bidez.

PERTSONAI AK

- **Nerea.** Luisarekin batera, liburuaren protagonista da. 35 urte inguruko emakumea da, nahiko lanpetua bizi dena erredakzioko lana dela eta. Gaztetan izan zuen mutil lagunak erbesteratu behar izan zuenean, inongo agurrik esan gabe alde egin zuen, eta lur jota geratu ostean Oxfordera joan zen eta bertan ezagutu zuen Lewis, bere senarra. Alaba Maialen eta Lewisi behar beste denbora eskaintzen ez dien sentrazioa dauka. Sentibera dela ondoriozta daiteke, eta ama ospitalean dela sentitzen du ez duela ama behar beste maitatu edo zaindu.
- **Luisa.** Nerearen ama dugu, liburuko protagonista. Orain kalean galduta aurkitu eta ospitalean dagoela, ez du burua ondo, lotan edo begirada galduta pasatzen ditu orduak. Hala ere, noizbehinka esaten dituen hitz edo esaldiek bere bizitza eraikitzen laguntzen dute. Gaztetan lotsatia zela esaten da, eta maitasunezko nobelak irakurtzea gustuko zuela. Izagirre jatetxean egiten zuen lan, eta bertan ezagutu zuen Nerearen aita. Gainera, itsasgizonarekin amodiozko abentura izan zuen, eta asko gustatzen zitzaion itsasoari zuzen begiratzea.
- **Lewis.** Nerearen senarra da, Oxfordera egin zuen bidaian ezagutu zuena. Oso "ingeleza" dela esaten da liburuan, eta Maialen alabari *Alice* ipuina irakurtzea oso gustuko du. Euskaltegian egiten du lan, itzulpenak egiten, eta etxetik ateratzea kostatzen bazaio ere, bertan lagun berriak egitea lortu du. Askotan ematen du ez duela ikusten Nereak berarekin egoteko duen gogo.

- **Dolores.** Nerearen izeko da, Luisaren ahizpa. Batera egiten zuten lan Izagirre jatetxean, eta banaezinak ziren. Doloresek bazekien German eta Luisaren arteko istorioa, eta momentu hartan laguntza gutxi eskaini izanaz damu da. Hala ere, izekok izugarrizko laguntza ematen dio Nereari ama ospitalean dagoela: alde batetik, bera bertan egotearekin soilik erosoago sentitzen da, eta bere indarra eta alaitasuna eskaintzen dizkio. Bestetik, Luisak esandako esaldiak azaldu eta iraganeko kontuak argitzen dizkio Nereari, ama hobeto ezagutzen duela sentiaraziz. Gainera, Dolores da momentu baten Luisak ezagutzen duen bakarra. Beraz, ezinbesteko pertsonaia gertaerak argitzeko.

BALI ABIDEAK

Prosazko lan honetan, honako baliabideak aipa daitezke: Espresaera aldetik, narrazioa da nagusi, baina sentimenduen deskribapenak garrantzi eta indar handia du. Nerearen pentsamendu zein sentimenduak metaforaz eta konparazioz hornitzen ditu. Hau guztia narratzaile orojakile baten hitzetan, bai iraganeko istorioa kontatzen duten kapituluetan, bai ildo nagusietan. Horrela, Luisaren sentimenduak ere azaltzen dira, bere gazte garaikoak, eta Nerearen kezka batzuekin alde gutxi duela ohartzeko ere balio du, hau da, belaunaldiz belaunaldi emakumeek antzeko sentipenak izan ditzaketela. Erabilitako hizkuntza euskara batua da, irakurle orok erraz ulertzeko modukoa. Estilo aldetik, landua dela esan daiteke, batez ere, erabiltzen dituen etengabeko metaforei esker. Liburuan zehar askotan errepikatzen dena itsasoa da, bizitzaren metafora gisa: haserre edo aztoratuta egotetik bare egotera pasatzen delako, askotan konturatzeke denborarik utzi gabe. Horren adibide argi gisa honako gogoeta hau dugu: "Eta, zorakeria egitera doazenei gertatzen zaien legez, ohartu dela bere gorputzaren proportzio handiena ura dela, ur korronteak nabaritzen dituelako gorputzean gora eta behera, alde batetik bestera. Olatuak bere bihotzaren kontra jotzen sentitzen dituela eta sortzen den bitsa ahotik irten behar zaiola, hitz bihurtua." Gainera, itsasoari aurrez aurre begiratzeak bizitza berari aurre egitearekin konparatzen du.

IRITZIA

Eleberriaren hainbat atal aztertu ondoren, literatur lan on ona dela ondorioztatu daiteke. Gaiaren aldetik, nahiko originala da, eta istorioak berak argumentu edo gertaera asko eta pilaturik ez badu ere, gaia guztiz era interesgarrian landu idazleak. Irakurlea liburua eskuetan hartu bezain laster istorioan murgiltzeko arrazoia, ordea, sentimenduak azaltzeko duen abilezia dela esango nuke. Horretarako, naturari egindako erreferentziak eta gogoetak bereziki ondo landu ditu. Bestalde, eguneroko bizitzako hainbat gai ere lantzen ditu, lanak denbora zurgatzen digun gizarte honetan. Alabari eskainitako arreta falta, senarrarekin duen komunikazio falta, lagunarekin kafe bat hartu barneak husteko denborarik eza eta abar.

Nobela honen osotasuna apur bat apurtzen duen gaia Karlosena dela esango nuke, izan ere beti izan du mutil lagun ohia buruan, eta askotan aipatu da narrazioan zehar. Bat batean Karlos herrian agertzen denean, ordea, garrantzi eman eta gauzak argitzeke geratzen direla iruditu zait. Berarekin geratzea adosten duenean, Nerea bere buruarekin gustura sentitzen dela esan daiteke, baina ez da besterik argitzen. Hala ere, amaren istorioa denez ildo nagusia, farora eramateak liburuari amaiera borobila eman diola esan dezaket, momentu hartan ematen duen sentsazioa hasiera hasieratik ama gertutik sentitzeko beharra asetuta ikusi duela Nereak, amarekin hitz bat bera ere trukatu gabe.

Denetan aipagarriena ekintza edo gertaera sinpleenei ematen zaien interpretazio bikaina da, izan ere, amaren keinu xumeenen aurrean Nereak beste elementu batzuekin konparatu edo ulertzeko era bitxia azaltzen du. Adibide gisa, behin baino gehiagotan aipatzen diren eskuak jarriko ditugu. "Adar arteko habiak txoria babesten duen modura babestu duten eskuak dira. Horrela irudikatzen du Nereak amaren babesa" edo "Horregatik geratu da geldi, amaren eskuei begira. Bihurgunez betetako errepedeak ematen dute haren eskuko zainek". Metafora huez baliaturik, guztiz nobela emotiboa izatea lortu du, azken finean, bizinahiaren aldarrikapen bat bihurtuz.

Esandakoa kontuan hartuta, hainbat sentsazio sorrarazten dituen nobela aparta dela ondorioztatzen dut, irakurtzea benetan merezi duen horietakoa.

BIBLIOGRAFIA ETA WEBGRAFIA

- Bibliografia:

Amaren eskuak, Karmele Jaio. Elkar.

- Webgrafia:

<http://euskaljakintza.com/amaren-eskuak-karmele-jai/>

<http://egaroa.com/eu/bloga/47/amaren-eskuak>

http://eu.wikipedia.org/wiki/Karmele_Jaio